



GAILUR
MENDI TALDEA
lezama • 1991-2018



Bazkide izateko urtean 15 euroko kuota ordaindu behar da.

Helbide honetara, gailurmt@outlook.com, IZENA EMATEKO FITXA bidali beharko duzu.

Aukera hauek dituzu urteko kuota (15€) ordaintzeko:

- Urtero automatikoki transferentzia egin dezaten, zure Bankuari Klubaren kontu zenbakia eman.
- Zure bankuko kontu-zenbakia eman ahal diguzu eta guk ordainagiri-helbideratua bidaliko dizugu.
- Diru sarrera egin Klubaren kontuan. Web orrian sartzen bazara, “Kontaktu”an klikatu ondoren, Klubaren kontua eskatu ahal izango duzu, edo bestela korreo elektronikoko bat bidali ahal duzu hurrengo helbidera gailurmt@outlook.com.
- Klubaren egoitzan zuzenean ordaindu (hilean lehenengo eta hirugarren asteazkenetan 20:00etatik 21:00etara). Kasu honetan lehenago jakinarazi behar diguzu.

BABESAREN GAINENGO LEGEZKO OHARRA PERTSONALEKO DATUAK

“Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Legearen 5. artikuluan ezartzen dena betez, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak, baita irudia ere, datu pertsonalen fitxategi batean gordeko direla eta horren titular eta arduraduna Lezama Gailur Mendi Taldea dela. Informazio hori gordetzearen helburua da Klubeko afiliazioak kudeatzea; aldian-aldian Lezama Gailur Mendi Taldearen jarduerari buruzko informazioa bidaltzea; esparru horietako klubek, elkarteek edo erakundeek Lezaman edo Txorierrin antolatzen dituzten udal-jardueren berri ematea; mendiko beste klub batzuek edo jarduera horrekin lotura duten federazioek antolatzen edo sustatzen dituzten mendi-jarduerak ezagutaraztea; estatistikak egitea; zerbitzuak ematea; bazkidearen kuota eta/edo lizentzia federatiboaren ordainketa egitean bankuko errezioboaren bitartez, banketxe laguntzaileari ematea; Klubaren webgunean jardueren urteko egutegian sustatzen ditugun jardueretan edo antolatu ahal izan diren beste jarduera batzuetan ateratako argazkiak jartzea; irudi horiek Lezama Gailur Mendi Taldeko beste bazkide batzuei lagatzea pertsona horiek irudian ageri den jardueran parte hartu badute; irudiak BMFri (Bizkaiko Mendizale Federazioa) eta EMFri (Euskal Mendizale Federazioa) lagatzea federazio-lizentziak egiteko, informazioa bidaltzeko, irudia erabiltzeko eta irudia federazio horien webgunean jartzeko, eta irudia BMFri lagatzea argazkian ageri den jarduerari loturiko diru-laguntzen eskaerak izapidetzeko Halaber, Lezama Gailur Mendi Taldeak bermatzen du datuen titularrak eskubidea izango duela datuak eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta horien aurka egiteko. Horretarako, idatzi bat igorri behar du helbide honetara: Garaioltza auzoa 133-E - Uribarri Topalekua, 48196 - Lezama (Bizkaia)”.